

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun zehatzei buruzko ikasketen gidaliburua

Ikasketa Planean adierazitakoa: Enpresen eta bestelako erakundeen zerga sistemari eta kontabilitateari buruzko gaiak kudeatzea, horiei buruzko aholkularitza ematea eta, hala behar bada, taldean lankidetzan jardutea, modu eraginkorrean (15. zk.).



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



1. maila: Tituluaren 15. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

1. mailan ez da garatzen.

2. maila: Tituluaren 15. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA


Enpresa txiki edo ertain bateko ohiko eragiketen kontabilitatea aurrera eramatea, eta zerga ordainketa pertsonalen arloan egoera errealak aztertze eta zergak likidatzeko oinarrizko zerga kontzeptuak erabiltzea, horri buruzko aholkularitza emateari begira.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
1. Oinarrizko zerga kontzeptuak erabiltzen ditu.	Zuzen erabiltzen ditu oinarrizko zerga hiztegia eta elementuak, dagokien testuinguruan. Era berean, zergen alderdi nagusiak aztertuta (zerga egitatea, salbuespenak, eskalak edo motak, etab.), haien ahalmen biltzaileaz eta birbanatzaileaz jabetzen da.
2. Egoera errealak aztertzen ditu.	Subjektu pasiboen egoera errealak aztertuta eta Espainiako zerga sistemaren egitura kontuan hartuta, modu egokian hautatzen ditu zerga aplikagarriak.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. Zerga likidazioak egiten ditu, zerga ordainketa pertsonalen arloan.	Subjektu pasibo jakin baten egoerari buruzko datuak oinarri hartuta, PFEZaren, ondarearen gaineko zergaren eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren likidazioak kalkulatzeko egiten ditu.
4. Oinarrizko eragiketak kontabilizatzen ditu, kontabilitate liburuetan.	ETE baten ohiko eragiketak kontabilizatzen ditu liburu egunkari nagusian, erregularizazioa eta ekitaldiaren itxiera barne hartuta.
5. Balantzea eta galdu-irabazien kontua egiten du, ekitaldia ixtean.	Zuzen egiten ditu ekitaldian kontabilizatutako eragiketen egoeraren balantzea eta galdu-irabazien kontua.
6. Enpresa erreal bateko balantze baten eta galdu-irabazien kontu baten datuak aztertzen ditu.	Enpresa erreal baten datuak oinarri hartuta, haren ondarearen egoerari buruzko diagnostikoa egiten du.
7. Kontabilitate printzipioak ezagutzen ditu, eta eragiketak interpretatzeko gai da, horretan inplikaturako printzipioak oinarri hartuta.	Espainiako Kontabilitate Plan Orokorraren Kontzeptu Esparruan oro har onartutako kontabilitate printzipioak ezagutzen ditu, eta enpresa beteko oinarrizko ustiapen eta finantzaketa eragiketak interpretatzen ditu, kasu bakoitzean lotura handiena duen printzipioaren arabera.
8. Inbertsio-finantzaketa eragiketak erregistratzen eta baloratzen ditu, eta badaki zer-nolako eragina duten urteko kontuetan.	Inbertsio-finantzaketa eragiketak zuzen erregistratzen eta baloratzen ditu, KPOn balorazio arauak kontuan hartuta, eta eragiketak balantzean eta galdu-irabazien kontuan izango duen eragina interpretatzen du.

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Ekonomia eta Ogasun Sistema, Kontabilitaterako Sarrera eta Finantza Kontabilitatea irakasgaiak gaitasun hori garatzen eta ebaluatzen dute.



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea

4. ZEREGINAK

Ekonomia eta Ogasun Sistema:


Gero eta zailagoak diren zerga kasuak ebaztea; hasieran, zergaz zerga, eta amaieran, hainbat zergari buruzko datuak konbinatuta.

Zereginak ikasgelan egiten dira lankidetzan, taldeka, eta autoebaluatzen dira.

Lauhilekoaren amaieran, ikasleek, banaka, lehendik egindako prozesua jasoko duen kasu orokor bat ebatzi behar dute.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Kontabilitaterako Sarrera

Izena	Zeregina (ebaluazio produktua/tresna)	Azken notaren
IC_EA1	1. gaiaren kontzeptuei buruzko kontzeptu mapa bat egitea.	% 2
IC_EA2	Amaierako egoeraren balantze bat egitea (2. gaia: ondare kontzeptua eta egoera balantzea)	% 4
IC_EA3	Galdu-irabazien kontu bat egitea (3. gaia: Galdu-irabazien kontua eta emaitza)	% 4
IC_EP3	Enpresa erreal baten urteko kontuak kopiatzea (Balantzea eta galdu-irabazien kontua)	% 2
IC_EP4	Txosten bat egitea, ondarearen egoera eta emaitza deskribatzen duena, IC_EP2aren datuen arabera, horiek baitira proiektuaren abiapuntua.	% 10
IC_EA4	Gutxieneko edukiak kontrolatzea (1-5 gaiak)	% 20
IC_EP5	Izakin eragiketak (erosketak, salmenta, izakin aldaketak, hondatzeak, etab.) ezagutzeko eta baloratzeko arauak buruzko eskema/laburpen kontzeptual bat egitea, poster erara (7. gaia: izakinak).	% 2,5
IC_EP6	8. gaiaren kontzeptuak ezagutzeko eta baloratzeko arauen eskema/laburpen kontzeptuala egitea, poster erara (orri bat).	% 2,5
IC_EP7	Izakin eragiketei, kobratze arriskuei eta nominei buruz enpresak egingo dituen eragiketen zerrenda egitea.	% 2
IC_EP8	Aztertutako enpresa errealaren datuetatik abiatuta, txosten bat egitea izakin eragiketarako, kobratze arriskua eta nominak adierazi eta kontabilizatuko dituen (1-9 gaia).	% 15
IC_EP9	Proiektua ahoz azaltzea	% 10
IC_EA5	Gutxieneko edukiak kontrolatzea (6-9 gaiak)	% 20



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Finantza Kontabilitatea

Izena	Zeregina (ebaluazio produktua/tresna)	Azken notaren %
CF_EA2	Epeak egokitzeari buruzko ariketak egitea (2. gaia). Gehienez, orri bat, kasu bakoitzeko.	% 4
CF_EA3	Gutxieneko ezagutzak kontrolatzea (1. eta 2. gaia)	% 20
CF_EP3	Ibilgetu eragiketak (erosketak, hobekuntzak, etab.) ezagutzeko eta baloratzeko arauetara buruzko eskema/laburpen kontzeptual bat egitea, poster erara (3. gaia).	% 2,5
CF_EP4	Egingo dituen eragiketen zerrenda: Egokitzapenak eta ibilgetua (% 2
CF_EP5	Doikuntzak eta ibilgetua barne hartzen dituzten eragiketen kontabilizazio egoera azaltzea.	% 15
CF_EP6	Irabazien gaineko zergaren kalkulu eta kontabilizazioari eta emaitzaren aplikazioari buruzko eskema kontzeptuala egitea, poster erara (orri bat) (5. gaia)	% 2,5
CF_EA4	Finantza inbertsioei eta funts propioei buruzko ekitaldiak ebaztea.	% 4
CF_EP7	Finantza-inbertsioak eta funts propioak barne hartzen dituzten eragiketak zerrendatzea	% 2
CF_EP8	Proiektuaren galdera nagusiari erantzuten dion amaierako txostena egitea. Horren barruan, aurreko eragiketa guztien ebazpena eta amaierako emaitzaren banaketa sartuko da (2-5 gaiak)	% 10
CF_EP9	Proiektua ahoz azaltzea	% 10
CF_EA5	Gutxieneko edukiak kontrolatzea (3-9 gaiak)	% 20



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



5. EBALUAZIO SISTEMA

Ekonomia eta Ogasun Sistema

Irakasgaia ebaluatzeko adierazle guztiak erabiltzen ditugu. Ebaluazioak bi osagai ditu: prestakuntza eta egiaztapena. Prestakuntza ebaluazioa ikasgelan egiten da, kasu praktikoen lankidetzako ebazpena aintzat hartuta, eta egiaztatze ebaluazioa, berriz, kasu global baten banakako ebazpenaren bidez egiten da.

Lehenengoa autoebaluazioan oinarritzen da; hartara, ikasleak hiru adierazleei dagozkien ikaskuntzaren emaitzetara bideratzen dira. Bigarrena banakako proba baten bidez egiten da, non ikasleek ikaskuntzaren hiru emaitzak gainditu beharko dituzten.

Gure ustez, adierazleak ez dira ebaluatu behar banaka –ehuneko bat emanez–, metagarriak baitira: zerga terminoak (1. adierazlea) zuzen erabili ezean, ezin dira hautatu zerga aplikagarriak (2. adierazlea), eta, beraz, ezin dira kalkulatu zergen likidazioak (3. adierazlea).

Gaitasunak, une honetan, % 40ko pisua du irakasgai osoan; izan ere, “arazoak ebaztea” gaitasun orokorrarekin batera eta modu banaezinean ebaluatzen da, eta bien balioa batera % 40 da.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



Kontabilitaterako Sarrera

Irakasgaia ebaluatzeko adierazle guztiak erabiltzen ditugu (4tik 6ra).

Gaitasun horren adierazle guztiak ebaluatzen ditu irakasgaiak, ikasturte hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez, eta honako pisu hau ematen zaio adierazle bakoitzari:

- 4. adierazlea: % 44,5
- 5. adierazlea: % 35,5
- 6. adierazlea: % 12

Adierazleen batuketa % 92 da, eta gaitasunaren ebaluazioak azken notaren % 90 hartzen du.

Finantza Kontabilitatea

Irakasgaia ebaluatzeko adierazle guztiak erabiltzen ditugu (4tik 6ra).

Gaitasun horren adierazle guztiak ebaluatzen ditu irakasgaiak, ikasturte hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez, eta honako pisu hau ematen zaio adierazle bakoitzari:

- 7. adierazlea: % 24
- 8. adierazlea: % 68

Adierazleen batuketa % 92 da, eta gaitasunaren ebaluazioak azken notaren % 90 hartzen du.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema argitara ematen da ikasleentzat, ikasturtearen hasieran.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.
3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



3. maila: Tituluaren 15. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

3. mailan ez da garatzen.

4. maila: Tituluaren 15. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

6. MENDERATZE MAILA

Zeregina: Kopiatu Lan Harreman eta Giza Baliabideetako "Graduko Tituluaren gaitasun zehazten diseinua" dokumentuetatik.

7. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

Aipatutako "Tituluaren gaitasun zehazten diseinua" dokumentuetan, gaitasuna garatzen duen irakasgai bakoitzaren ikaskuntza emaitzak agertzen dira.

Gaitasuna garatzeko lagungarriak diren irakasgaien zereginak:

- 1. Ikaskuntzaren emaitzak homogeneizatzea.** Helburua da maila bakoitzaren ikaskuntza emaitzak islatzea, irakasgaien arabeko taxonomia gaindituta. Zenbait kasutan, nahikoa izango da irakasgai bakoitzaren ikaskuntza emaitzak gehitzea. Beste batzuetan, hobe izango da emaitzak berriro biltzea. Esate baterako, irakasgai batek "A" eta beste batek "B" aztertzen badu, ikaskuntza emaitza hau izan daiteke: "A eta B" aztertzen ditu.
- 2. Ikaskuntza emaitzetarako adierazleak zehaztea.**



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. Ikaskuntza adierazleak eta emaitzak taula batean islatzea.

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZA EMAITZAK

8. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK.

Zeregina: Kopiatu "Tituluaren gaitasun zehatzen diseinua" dokumentuetatik.

9. ZEREGINAK

Gaitasuna garatzeko lagungarriak diren irakasgaien zereginak:

1. Gaitasuna ebaluatzeko zereginak zehaztea.
2. Gaitasuna modu homogeneo eta sintetikoan garatzeko lagungarriak diren irakasgai guztien zereginak islatzea.

10. EBALUAZIO SISTEMA

Gaitasuna garatzen duen irakasgai bakoitzaren zeregina: bere ebaluazio sistema deskribatzea, honako hauek adierazita:



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea



1. Irakasgaiaren izena
2. Ebaluatzen dituen adierazleak. Irakasgai bakoitzak, ebaluatzeko, oinarritzat har ditzake gidaliburu honen bigarren puntuari adierazitako adierazle guztiak edo horietako batzuk, eta beste baten bat ere gehi dezake. Mailan gaitasuna garatzen duten irakasgai guztiak 2. puntuari adierazitako adierazle guztiak erabiltzen dituztela bermatu behar da.
3. Gaitasuna ebaluatzean, adierazle bakoitzari emandako pisua.
4. Irakasgaiaren notan, gaitasunari emandako pisu globala.
5. Komenigarritzat jotzen bada, zereginei eta ebaluazioari lotutako gainerako alderdiei buruzko informazio osagarria eman daiteke.

Gidaliburua amaitzeko, graduko gaitasun zehatz guztien gidaliburuetarako komunak diren paragrafo hauek ageri dira:

Irakasgai bakoitzaren ebaluazio sistema argitaratzen da ikasleentzat, ikasturtearen hasieran.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun zehatzaren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasunaren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua gaitasuna garatzen duten beste irakasgai batzuekin kontrastatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiaren arduraduna harremanetan jarriko da gainerako arduradunekin.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014-2015 ikasturtea

3. Dagozkion kontsultak beharrezkoa den diskrezioz egin ondoren, gaitasuna garatzen duten irakasgaietako arduradunek erabakiko dute, eta beren irakasle taldeei jakinaraziko diete. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.